



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/05/11

BOSEko, Euskalduna Jauregiko eta museoak eta ondarea kudeatzen dituan BizkaiKOA erakundeko arduradunak Bizkaiko Batzar Nagusien Kulturako Batzordearen aurrera etorri dira

Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kulturako Batzordeak Lorea Bilbao Foru diputatu arduradunaren agerraldia jaso dau gaur goizean, sailaren esku dagozan soziedade publikoetako hiru goi karguk lagunduta: Ibon Aranbarri, BOSEko (*Bilbao Orkestra Sinfonikoa*) zuzendari nagusia; Andoni Aldekoa, Euskalduna jauregiko zuzendari nagusia; eta Asier Madarieta, BizkaiKOAko, hainbat museo eta lurraldeko kultur ondarearen parte handia kudeatzen dauen erakunde publikoko, gerentea.

Agerraldi horreek, Talde Mistoak eta EH Bilduk egin dituen eskariei erantzuten deutsee, azken asteetan foru erakunde autonomoetako eta foru sektore publikoko enpresetako arduradunak Bizkaiko Batzarretako batzordeetara joan daitezcan eskariak bideratu dituelako, erakunde eta soziedade baxotxaren jarduketan eta proiektuetan, plan estrategikoen, bertako beharginen baldintzen eta horreen jardureagaz erlazionautako bestelako gaien inguruko azalpenak emoteko.

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

BOS - Fundación Juan Crisóstomo de Arriaga Fundazioa - Bilbao Orkestra Sinfonikoa, foru erakundeari jagokonez, Lorea Bilbaok adierazo dau Euskadi osoan ibilpide luzeena daukan musika sinfoniko taldea dala, eskintza dibertsifikaua eta kalidade handikoa daukana, “benetako luxua, berba horren esanahi onenean”, eta erakunde estrategikoa dala Kulturako Foru Sailerako. Lantaldea 86 musika-tresna jotzailek eta administrazinoko beharrak egiten dituen 11 beharginek osatzen dabela be zehaztu dau, eta soldatetan urtean sei milioi euro eta erdi baino apur gehiagoko gastua daukala. 2015etik BOSEko zuzendaria dan Erik Nielsen lan bikaina be azpimarratu dau “beragaz oso hartu-emon ona daukagula” adierazoz.

Batzar Nagusien aurrera lehenengo aldiz etorri dan zuzendari nagusiak talde guztiek planteautako itaunei erantzun deutse. Holan, azaldu dauenez, une honetan orkestrak 2.682 abonatu ditu, musika sinfonikoko 2.435 eta ganberako musikako 247. Aranbarri pozik agertu da erakundearen aurrekontuagaz, eta lantaldea gatzetzeko prozesua azpimarratu dau. Horri esker gero eta emakume gehiago dago –gaur egun lantaldearen herena, gitxi gorabehera– eta Espainiako estadutik etorritako musika-tresna jotzaile kopurua be gero eta altuagoa da, azken 35 urteetako handiena. Orkestrak aurrean dituan gertakari garrantzitsuen artean, 2019an Omanera egingo dauen bira aitatu dau, 2009an BOS Japoniara joan zanetik hamar urte beteten diranean. Horrez gain, lau urte barru mendeurrena ospatuko dauela aitatu dau. Ospakizun hori merezi dan moduan ospatuko dau orkestrak, “baina etxea leihotik bota barik”.

EUSKALDUNA SINFONIKOA

Euskalduna Jauregia Palacio Euskalduna, S.A. izan da Euskera eta Kulturako Batzordera etorri dan bigarren foru erakundea. Lorea Bilbaok esan dauenez, “kulturaren arloko lehen mailako erakundea” da, “gaur egun ezinbestekoa Bizkaiarentzat”, eta azaldu dauenez, bazkide bakarra Foru Aldundia daukan soziedade anonimoa da. 1994an sortu zan, instalazinoak 1998an inaugurau ziran, 2003an mundu osoko kongresu jauregi onena izendatua izan zan eta 2012an handitu egin zan. Bertako ekipamendu maila altua eta urian daukan kokaleku pribilegiua nabarmentzeaz aparte, azkenengo ekitaldian lortu ebazan 6,8 miloi euroko diru-sarrerak azpimarratu ditu.

BOSeko zuzendariagaz gertau dan moduan, Andoni Aldekoa Euskalduna Jauregiko zuzendari nagusia lehenengo aldiz etorri da Bizkaiko Batzar Nagusien aurrera, eta alderdi politikoetako ordezkariak planteautako zalantzak eta itaunak erantzun ditu. Jauregiaren beste handitze posible bati jagokonez, Aldekoak argitu dauenez, epe laburrean eta ertainean “eraikinaren modernizazinoan eta digitalizazinoan inbertidutea” baino ez dago aurreikusita “lehiakorrek izaten jarraitzeko”, eta etorkizunean ustiatzen jarraitu beharko dan elementu bereizlea dan uri ingurunean daukan kokalekuko 22 aretoetan erabilgarri dagozan 58.000 metro karratuen aldeko apustua egitearen alde agertu da. Sarrera nagusian eta barruko eskileren sarbideetan orientazino arazoak gertatzen dirala autortu dau, eta, horri jagokonez, barruko seinaleztapen eta mobikortasun plan barria iragarri dau, seinaleetan hobekuntzak sartuz eta personen joan-etorriak bideratzen lagunduko daben elementu mekanikoak gehituz.

Kultur eskaintzaren ikuspuntutik, “gu ez gara kultur sustatzaileak” argitu dau, baina harro agertu da “arlotako *partner* garrantzitsuakaz” daukien lankidetzeara dala eta, BOSegaz, Euskadiko Orkestra Sinfonikoagaz, OLBEgaz, Bilboko Musika Bandagaz edo Bilbao 700 Fundazinoagaz, adibidez”. Eta horri jagokonez, “hemen gagozala esan deusagu arte eszenikoen munduari, euren proposamenak guri ekarteko, gugaz behar egitearen aukerea ikusi daien” adierazo dau. Podemos taldearen itaun bati erantzunez, azpi-kontratazinoak derrigorrezkoa dala azaldu dau, “egun batzuetan ez dagolako ezelango jarduerarik eta beste egun batzuetan, barriz, egun bakarrean, 4.500 persona etorten diralako hamar jarduera baino gehiagotara, eta horreetako bakoitzak zerbitzu desbardinak eskatzen ditu”.

BIZKAIKOA

Hirugarren eta azken agerraldia BizkaiKOaren inguruan zentru da. Foru Aldundiaren esku dagon enpresa erakunde publikoa Bizkaiko kultur ondarea hedatzeko eta hainbat museo (Bilboko Arkeologia Museoa, Gernikako Euskal Herria Museoa, Bermeoko Arrantzale Museoa, Balmasedako La Encartada Museoa eta Muskizeko Pobal Burdinola) eta beste azpiegitura batzuk (Bilboko Errekalde Aretoa, Bakioko Txakolingunea, Santimamiñeko kobak, Omako Basoa, Foruko aztarnategi erromatarra, Muñatoneseko gaztelua...) kudeatzeko xedez sortu zan

Kulturako Foru Diputatuak adierazo dauenez “erakunde hori da etxe honetan gehien ezagutzen dana”, 2011n martxan jarri zanetik Batzar Nagusietan berari buruzko hainbat ekimen landu diralako. Lantaldearen (20 persona) eta aurrekontuaren (4,8 milioi azken

urtean) datuak azaldu ditu, eta ekitaldi honetako ekimen garrantzitsuenak European Ondarearen Urtea ospatzen dala esan dau, “gure kasuan, ospakizunak 35 jardura baino gehiago jasoko ditu, gure ondare ezkutua herritar guztiengana hurbiltzeko”. Asier Madarieta erakundeko arduradunak, “txipa aldatzeko, gure museo txiki guztiei buelta emateko” beharra azpimarratu dau, eta arlo horretan egiten ari diren esfortzuak be nabarmendu ditu. Dana dala, zehaztu dauenez, “igaz 200.000 bisitari baino gehiago izan genduzan, eta hazten jarraitzen dogu”. Ibilpide arkeologiko barriak jarriko dirala martxan be iragarri dau, horreen artean Zin-egite Ibilpide bat urte honetan bertan.

NOTA DE PRENSA
11/05/18

Los responsables de BOS, Palacio Euskalduna y de la entidad gestora de museos y patrimonio BizkaiKOA comparecen ante la Comisión de Cultura de las Juntas Generales de Bizkaia

La Comisión de Euskera y Cultura de las Juntas Generales de Bizkaia ha registrado esta mañana la comparecencia de la Diputada Foral responsable de este Departamento, Lorea Bilbao, acompañada de tres altos cargos de sociedades públicas dependientes del mismo: Ibon Aranbarri, directo general de BOS (*Bilbao Orkestra Sinfonikoa*-Orquesta Sinfónica de Bilbao); Andoni Aldekoa, director general del Palacio Euskalduna; y Asier Madarieta, gerente de BizkaiKOA, la entidad pública que coordina varios museos y buena parte del patrimonio cultural del territorio.

Estas comparecencias responden a peticiones conjuntas de los Grupos Mixto y EH Bildu, que en las últimas semanas han tramitado solicitudes para que los responsables de la totalidad de las entidades forales autónomas y empresas del sector público foral acudan a las comisiones correspondientes de la Cámara vizcaína para dar cuenta de sus actuaciones y proyectos, planes estratégicos, condiciones de su personal y demás cuestiones relacionadas con su actividad.

BILBAO ORKESTA SINFONIKOA

Respecto a la entidad foral BOS (*Bilbao Orkestra Sinfonikoa*) - Fundación Juan Crisóstomo de Arriaga - Orquesta Sinfónica de Bilbao, Lorea Bilbao ha manifestado que se trata de la agrupación de música sinfónica de más larga trayectoria en el País Vasco, con una oferta diversificada y de gran calidad, “un lujo en el mejor de los sentidos”, y que constituye una entidad estratégica para el Departamento foral de Cultura. Ha detallado también que dispone de una plantilla de 86 instrumentistas y 11 puestos de personal administrativo, que suponen un gasto de algo más de seis millones y medio de euros al año en sueldos. Ha destacado también el buen hacer del director de BOS desde 2015, el norteamericano Erik Nielsen, “con quien mantenemos una relación muy fluida”.

El director general, que comparecía por primera vez ante las Juntas Generales, ha respondido a las cuestiones planteadas por los diversos grupos. Así, ha explicado que la orquesta cuenta actualmente con un total de 2.682 abonos, divididos entre 2.435 de música sinfónica y 247 de cámara. Aranbarri se ha mostrado satisfecho con el presupuesto con que cuenta la entidad, y ha puesto de relieve el proceso de rejuvenecimiento de la plantilla, que está permitiendo incrementar el número de mujeres –que son alrededor de un tercio-, así como el porcentaje de instrumentistas procedentes del estado Español, que es actualmente el mayor en los últimos 35 años. Como hitos en perspectiva, ha apuntado la próxima gira a Omán en enero de 2019, que se producirá una década después de la que llevó a la BOS a Japón en 2009; así como la celebración del centenario dentro de cuatro años, una ocasión que la orquesta deberá celebrar como se merece “pero sin echar la cada por la ventana”.

PALACIO EUSKALDUNA

Euskalduna Jauregia Palacio Euskalduna, S.A. ha sido la segunda entidad foral objeto de atención por parte de la Comisión de Euskera y Cultura. Lorea Bilbao la ha calificado como “entidad de primer nivel en el ámbito cultural, imprescindible hoy por hoy para Bizkaia”, y ha explicado que se trata de una sociedad anónima con la Diputación Foral como único socio, y que fue creada en 1994, sus instalaciones inauguradas en 1998, reconocida como mejor palacio de congresos del mundo en 2003, y ampliada en 2012. Ha destacado también su alto nivel de equipamiento y su privilegiada ubicación urbana, y los 6,8 millones de euros en ingresos obtenidos en el último ejercicio.

Como en el caso de su homólogo en la BOS, su director general Andoni Aldekoa ha comparecido por primera vez ante las Juntas Generales de Bizkaia, y ha sido el encargado de responder a las dudas y preguntas planteadas por los portavoces políticos. Sobre una posible nueva ampliación del Palacio, Aldekoa ha aclarado que a corto y medio plazo únicamente está previsto invertir “en la modernización y digitalización del edificio, para seguir siendo competitivos”, y ha apostado por seguir apostando por los 58.000 metros cuadrados disponibles en 22 salas en un entorno urbano como el elemento diferencial que habrá que seguir explotando en el futuro. Ha reconocido problemas de orientación en la entrada principal y los accesos de escaleras interiores, y a este respecto ha anunciado un nuevo plan de señalización y movilidad interna, con mejoras en la señalética e introducción de nuevos elementos mecánicos que ayuden a dirigir los flujos de personas.

Desde el punto de vista de la oferta cultural, ha aclarado que “nosotros no somos promotores culturales”, si bien se ha mostrado orgulloso de la colaboración “con grandes *partners* en este ámbito como la propia BOS, la Orquesta Sinfónica de Euskadi, la ABAO, la Banda de Música de Bilbao o la Fundación Bilbao 700”. Y a este respecto también ha precisado que “hemos trasladado al mundo de las artes escénicas el mensaje de que aquí estamos, de que nos traigan sus propuestas, de que vean la oportunidad de trabajar con nosotros”. También ha explicado, en respuesta a una pregunta de Podemos, que la subcontratación es inevitable, dado que “hay días con actividad cero, y otros con 4.500 asistentes en una sola jornada a una decena de actividades diferentes, cada una de las cuales demanda diferentes servicios”.

BIZKAIKOA

La tercera y última comparecencia se ha centrado en torno a la realidad de BizkaiKOA, entidad pública empresarial dependiente de la Diputación Foral, creada con el objetivo de difundir el patrimonio cultural de Bizkaia, y gestionar varios museos (Arqueológico de Bilbao, Euskal Herria de Gernika, Arrantzale de Bermeo, La Encartada en Balmaseda y Ferrería del Pobal en Muskiz) y otras infraestructuras (Sala Rekalde en Bilbao, Txakolingunea en Bakio, cuevas de Santimamiñe, Bosque de Oma, ruinas romanas de Forua, castillo de Muñatones, entre otras).

La Diputada Foral de Cultura ha señalado que “esta entidad es la más conocida en esta casa”, por haber sido objeto de diferentes iniciativas en Juntas Generales desde su puesta en marcha en febrero de 2011. Ha expuesto los datos de plantilla (20 personas) y presupuesto (4,8 millones en el último año), y ha destacado como la iniciativa más

relevante del ejercicio en curso la celebración del Año del Patrimonio en Europa, “que en nuestro caso llevará aparejadas más de 35 actividades para acercar a la población nuestro patrimonio oculto”. El responsable de la entidad, Asier Madarieta, ha puesto el acento en la necesidad de “cambiar el chip, de darles una vuelta a todos los museos pequeños” y en los esfuerzos que se están llevando a cabo en este sentido, si bien ha precisado que “superamos los 200.000 visitantes e año pasado y seguimos creciendo”. También ha anunciado la puesta en marcha de nuevos itinerarios arqueológicos, entre ellos una Ruta Juradera para este mismo año.